



LABen oharra:

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendaritzak jakinarazi berri du, Gurutzetako ospitalean asteburuetan ematen diren lentzeria zerbitzuak Osakidetzako langileek egingo dituztela, orain egiten ari den Garbaldi enpresaren ordean. Orain dela urte batzuk, eta langileen mobilizazioen ostean, bere osotasunean kontrata pribatuak egiten zuen lentzeria zerbitzuko atal bat berriro publikoak izatea lortu zen; izan ere asteleheneetik ostirala bitartean Osakidetzako langile publikoak egitera pasatu ziren, eta asteburuetan kontratako langileak.

Harrezkerotik, zerbitzu osoa publiko bihurtzeko aldarrikatu dugu behin eta berriro. Azkenean, badirudi aldarrikapena errealitate bihurtuko dela, ESIko gerentziak jakinarazi digunez.

LABek jarraituko du pribatizazioa borrokatzen eta pribatizatu diren zerbitzu guztiak berriro publikoak izateko aldarrikatzen, hauxe baita lan-baldintza duinak eta kalitatezko osasun arreta bermatzeko bide bakarra.